




DBH 4

**NEURE BURUAREN ALDE**



AUTOREA: Koldo Zuazo

IZENBURUA: Neure buruaren alde

ILUSTRATZAILEA:

ITZULTZAILEA:

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Irun, Alberdania, 2011

ORRIALDE KOPURUA: 181

BILDUMA: Ostiral saila

ISBN: 978-84-9868-330-1

**ADIN TARTEA:** 14 urtetik aurrera

**IRUZKINA**

Nobela historiko eran osatu du fikziozko lan hau, euskararen historia eta hizkuntzalaritzari dagokionez aski ikasia den Koldo Zuazok. Literaturaren aldetik begiratuta ongi josita dago, narrazio irakurterraz eta entretenigarria da, bestelako ekarpenik egin gabe. Arabako euskarari, mendebaldeko euskarari (Bizkaiera esaten diogun horretan) oinarritutako euskara batuan idatzita dago, ulerterraz halere, baina hainbat bitxikeria eta exotismo dituen hizkera. Historikoki dokumentatua dago, azken atalean dagoen bibliografia lekuko.

Martin Garaigordobil otxandiarraren memoria liburua da, XVI. mendean kokatutako pertsonaia asmatua. Nobela historiko hau abenturaz betea dago, Ameriketara ihesean



joatea beste aukerarik ikusten ez duen Martinen bitzta abentura gertatzen baita. Han espainiar gobernariaren ankerkeria ezagutu zuen, bertako biztanleak, amerikarrak, zein bidegabeki gutxietsi eta erasotzen zituzten.

### IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

- Arabako euskara, euskararen historia, dialektologia. Koldo Zuazoren dibulgazio lanen haritik tiraka euskararen gaineko ikerketa abia daiteke.
  - [“Euskararen Herri Hizkeren Atlasa”](#) araka daiteke eta antzeko mapak osatu lexiko modernoarekin: gailu eta teknologia berriari atxikitako lexikoa, modismoak eta argotaren inguruko hitzak,...
  - [Landuchioren hiztegia](#). Lehen euskal hiztegia eta aldi berean Arabako euskararen lekuko dena ezagutu, testuinguru historikoan kokatuz. Norbere herriko edota eskualdeko hiztegiak ezagutu eta araka daitezke.
  - Zuazoren beraren dibulgazio lanen bat irakur daiteke, esaterako “Euskalkiak: Euskararen dialektoak”, “Euskara batua: ezina ekinez egina” edota “Euskararen sendabelarrak”. Eta bertan proposatzen diren hausnar-bideen haritik norbere herriko hizkeraren gaineko lanak abiatu.
  - Euskal baladekin lan egin. Iturrietatik baladak jasota (esaterako: *Euskal baladak azterketa eta antologia* liburua, edota “Hiru truku” taldearen kantak, edota Benito Lertxundirenak,...). Testuak ulertu, testuinguruan jarri eta jarraian aldaerak sortu, motibazio bereko letra berriak proposatuaz (tragediak, aldarrikapenak, kronikak,...) edota kantatzeko molde berriak proposatuaz: rapeatu etab.
- Koloniak, kolonialismoa, Ameriketako inbasioa eta ondorengo jazarpenak.
  - Ameriketako herri kolonizatuen gaur egungo egoera jaso. Bideo bidez, [Barí](#) herriarena edo esaterako [“Videoteca alternativa”](#) bideotekan kolonialismoari buruz eskaintzen dituztenetatik nahi dena (gaztelaniaz). Jarraian migrazioak eta kolonializazio prozesuak azaltzen dituen dokumentua eratu.
  - Literatur maisulanak eta lehenagoko eta oraingo kolonialismoa. Kolonialismoa aztertu duen literatur lanak irakurri. Esaterako “Heart of darkness”. Euskarazko itzulpena [“Ilunbeen bihotzean](#) (1990)” internet bidez osorik eskura daiteke; halaber [gaztelaniaz](#), [frantsesez](#), zein jatorrizkoa [ingelese](#)z irakur daitezke. Jarraian Coppolaren “Apocalipsis Now” filma ikusi. Azkenik munduan gaur egun dauden gerra nagusiak mapa batean kokatu eta euren azterketa egiten saiatu, ikuspuntu kolonialista batetik.
- Gerra, inperialismoa.
  - Goya margolariaren [“los desastres de la guerra”](#) grabatuen bilduma aztertu.
  - Lekukotasunak bilatu eta euren lekukotasunak ahalik eta modu grafikoenean jaso, kazetaritzaren galdera nagusiak bilatuz: nork, zer, noiz, non, nola, zergatik. Ondoren txosten bat osatu gerrari buruzko



## LIBURU GAZTEA 2012-2013



datu hauek emanez: zer den gerra, nork, noiz eta zertarako.

- Kultur aniztasuna. Kultura eta lurraldea loturik dauden kontzeptuak al dira? Galdera honi begirako ikerketa abiatu.
- Nobela historikoak. XVI mendean kokatutako mikroipuin lehiaketa. Baloratu: egokitzapen historikoa, kalitate literarioa, unibertsaltasuna (leku eta garai anitzetako irakurleek ulertzeko modukoa izatea).
- Aitorpen literatura, literatura biografikoa. Fikzionatu norbere bizitza narrazio hiper-laburrean.